

Ariketa hauek Ikasbileko 2073608 jardueran aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-69 Paradisuko txoriak

Mailak: B2-C1

Funtzioak: Iritzia eman, proposamenak egin, azalpena egin

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*Ondarroa, arrantza, portu, filmaketa, dokumental, txori, bizimodu, ekoiztetxe, orrazkera, jeloskor, lankide...*) *egingo nuke, egingo bagenu, genezake, -ela iruditzen zait, nire iritziz, ustez, ahalik eta...-en, baino -agoa, adina/bezain, bat nator...-rekin, ez zait iruditzen...-enik, ahalik eta...-en, -ago, -en modukoa(k), halako...*

Azken ekintza: Dokumentalaren edukia prestatu eta ikaskideei laburpena azaldu

EGITEKOAK

1- Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 1.1 Arrantzaleen lan egoera



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelako mintza-saioa prestatzeko



jarduera: Arrantzaleen lan egoeraz gogoeta egin behar dute. Horretarako, eskatzen zaien atalei buruzko informazioa bilatu eta garatu behar dute, ikasgelan partekatzeko. Atalak: Lan baldintzak, ordainketa sistema, lan istripuak, biomasaren arazoa...

Adb. *Hilabeteak igarotzen dituzte etxetik kanpo, senideengandik urruti eta egoera neketsuetan lan egiten.*

Nahi izanez gero, informazioa [artikulu honetan](#) aurki dezakete.

Ordainketa sistema: Baxuran dago arazo handiena, lan hitzarmenik ez baitago, eta ordainketa sistema oso zaharkitua geratu baita. A la parte deritzon eran egiten da ordainketa: ontziak harrapatu duenaren erdia armadorearentzat da, eta beste erdia eskifaiaiko gizonen artean banatzen da. Jakina, asko harrapatuz gero, ondo, baina gutxi edo deus ez harrapatzea ere gertatu izaten da, eta orduan ez da etxean dirurik sartzen. Alturako ontzietan soldataren zati bat finkoa da –1.000 euro inguru– eta kopuru horri harrapaketen ehuneko bat gehitzen zaio, %1 eta %3 artean ibiltzen dena, tripulataile bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Lan istripuak: «Askotan, eguraldi txarra egin arren itsasoratzerara behartzen dituzte arrantzaleak, eta horrek lan istripuen arriskua handitzen du. Gainera, atsedean hartzeko ere ez da egokia ontzia, eta erreflexuak jaitsi egiten dira. Hitz batean, interes ekonomikoengatik langileen bizitza arriskuan jartzen da».

Biomasaren arazoa: Neurritz kanpoko harrapaketen ondorioz hainbat espezie desagertu egin dira gure uretatik, adibidez bisigua. Antxoia ere kinka larrian egon da, nahiz eta bost urteko geldialdiak suspertu egin duen. Antxoarekin eta berdelarekin gauza larri bat gertatzen da; errute garaian harrapatzen dira, orduan koipe gehiago dutelako, baina agerikoa da horrek espeziaren ugalketa oztopatzen duela. «Biologoek abisatu dute arrisku horretaz, baina agintari politikoak ez dira ausartzen arrantza mota horri mugak jartzen, ondorio ekonomiko itzelak izango lituzkeela-eta. Esaterako, urte osoan lanean aritu beharrean, hiruzpalau hilabetetan bakarrik jardutea ontziak», diosku Belaustegik. Bakailoa ia galdu egin da Ternuan, eta horregatik geratzen dira arrain hori arrantzatzen jarduten diren bi ontzi soilik Euskal Herrian, garai batean Pasaian bakarrik 90 ontzi zeudenean.

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarrizketan erabilitako konparazio egiturak erabiliz, esaldiak osatu.

1- Entzun aurretik

1.2 Ondarroako portua

Jonek arrantza-portu bateko irudi bila joan da Ondarroara. Binaka bertako irudiei erreparatu eta saia daitezela esaten portuko zer izango ote den Joni gehien eta gutxien gustatuko zaiona. Talde handian komentatu eta azkenik, elkarrizketa entzun Jonek esandakoa ezagutzeko.

Zuzenketa:

Gustukoa: **benetako arrantza-portua dela**

Ez zaio gustatuko: **Santiago Calatravak egindako zubia**



2- Entzun bitartean

2.1 Egia ala gezurra?

Audio-pasartea entzundakoan, baieztapenak egia ala gezurra diren adierazi behar dute. Ondoren alderatu ditzatela erantzunak ondoko ikaskidearekin.

Zuzenketa:

- Arrantza-ontzi batean filmaketa egitera joan dira Ondarroara
- Bermeoko portua gehiago gustatzen zitzaien, baina irudian Calatravaren zubia agertu behar zuen derrigorrean.
- Joneren ustez Ondarroa ez den beste portu politagoak bazeuden aukeran, baina Jonek postaletarako egokiak dira horiek, ez arrantza portua irudikatzen.
- Ekoiztetxean Jonekin lan egiten duen Arantxak susmoak piztu ditu Jonerengan eta jeloskor jarri da Jonek oso neska polita dela esan diolako
- Arantxak Ondarroan dauden hegazti exotikoari buruzko erreportajea egiteko ideia bikaina izan omen du
- Harritzekoa bada ere, Jonek nahiago omen du Jone marmartia Arantxa ederra baino

2.2 Ondarroako gorria eta paradisuko txoriak

Elkarrizketan aipatu dituzten “Ondarroako gorria” eta “paradisuko txoriak” zer diren azaldu behar dute eta ikaskidearekin alderatu.

Jarduera honetarako, komenigarria litzateke audio-pasartearen azken zatia berriro entzutea.

Zuzenketa:



Arantzak dio Ondarroako emakumeen orrazkerekin pelikula bat egin litekeela . Herri horretan emakumeek darabilten orrazkera oparoa da, paradisuko txorien modukoak dira emakume ondarruarrak. Ite orrazkera eroak eta kolore biziko tinduak erabiltzen dituzte. Arantzak dio, badela gorri kolore bat Ondarroa gorria behar duena izan, ileko kolore hori Ondarroan besterik ez dela ikusten.

3- Entzun ondoren

3.1 Arrantzaleen lanbideaz

Talde txikitan bilduta, partekatu dezatela ariketan arrantzaleei buruz bildu duten informazioa. Ikaskideen azalpena entzuten duten bitartean, jaso ditzatela berriak edo interesgarriak egin zaizkion ideiak.

3.2. Dokumentala sortzen

Talde txikitan prestatu dezatela Jonek elkarrizketan aipatu duen dokumentalaren edukia eta horren laburpena egin besteei.

Gai nagusia: *zer egiten du arrantzaleak itsasoan ez dagoenean?*

Talde txikitan landu beharrekoa:

- Izenburua, azpigaiak , dokumentalaren ikuspuntua, zein irudi, eszena erakutsi nahi dituzuen, noren testigantzak bildu (...)

Adibide hauek prestaketarako lagungarriak izan daitezke

Zerbait proposatzeko:

- *zergatik ez dugu...-t(z)en?*
- *hori baino lehen, zera egingo nuke nik....*
- *.... egingo bagenu, zer iruditzen?*
- *...egin genezake*

Konparazioak egiteko:

- *Lortu nahi dugunerako, irudi hau beste hori baino egokiagoa da*
- *Ahalik eta elkarrizketa gehien edukitzea komeni zaigu*
- *Ez da film bat bezain luzea izan behar*

Adostasuna / desadostasuna azaltzeko:

- *konforme, ados nago, bat nator zurekin*
- *ondo iruditzen zait esan duzuna,*
- *Ez zait iruditzen horrela izan behar duenik*

Iritzia emateko:

- *(e)la... iruditzen zait*
- *Nire ustez/ iritzi...*
- *... egingo nuke*
- *ez nintzateke arduratuko horretaz...*
- *Ez zait iruditzen ...-enik*

Talde handian: Osatu duzuen dokumentalaren laburpena azaldu besteei. Adibideari erreparatu zuena prestatzeko ideia har dezazuen

KARDALA

Arrantzaleen emakumeen indarra erakusten duen dokumentala da. Kardala, itsasoak, olatuaren tontorra apurtzen hasita dagoela, honi ematen dion bultzada edo kemena da. Indar berbera behar izan dute arrantzaleen emakumeek urteetan zehar bizitzeari

aurre egiteko. Hiru emakumeen bizitza kontakizunak agertzen dira dokumental honetan: Isaura, Garbiñe eta Maitane. Euren egunerokotasunari, beldurrei, ardurei eta bestelakoen gainean berba egiten dute, askotan hain ezaguna izan ez den errealitatea erakutsiz .

www.Bizkaie.biz (moldatua)

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Konparazioak

Erreparatu elkarrizketan konparazioak egiteko erabili dituzten egiturei eta adibideei; eta ondoren, osatu esaldiak

Ahalik eta....-en

Barkatu, ahalik eta azkarren itzali nahi izan dut iratzargailua

-ago

Eta ez al zegoen porturik gertuago?

(baino...) -agoa(k)

Ondarroa eta Bermeo baino herri politagoak badaude

-en(a)

Aproposena zela iruditu zaigulako aukeratu dugu

Eta hoberena (onena) badakizu zer den? Uste duzula zeloak disimulatzen ere badakizula

Honela, horrela, hala... + -ko

Horrelako dokumental asko egin dira, ezta?

-en modukoa(k)

Ondarroako emakumeen orrazkerak paradisuko txorien modukoak dira

Harrituta nago semearekin, inoiz ez diot (HALA) **halako** interesik ikusi

Soka hau ez da beste muturreraino iristen;(LUZE) **luzeago** bat behar dugu

Aulki hau eramán dezakegu bakarrik, besteak (APURTU) **apurtuago** daude-eta

Besteak ez daude gaizki, baina inolako zalantzarik gabe, hauxe dago (ONDO) **ondoan**

Hori munduko(TONTO) **tontoenak** ere badaki

Ez zara luze bakarrik egongo, ni (LASTER) **ahalik eta lasterren** joango naiz eta

Nire ustez, hauxe da gure egongelarako alfonbrarik (EGOKI) **egokiena**

Seme-alabak guraso (MODUKO) **gurasoen modukoak** izaten dira

TRANSKRIPZIOA

JONE Zer ordu da?

JON Barkatu, ahalik eta azkarren itzali dut

JONE Baina zer ordu da?

JON 6ak, esan nizun gaur ere goiz esnatu behar nuela.

JONE Ez nintzen akordatzen.

JON Bueno, banoa arratsalde partean itzuliko naiz.

JONE Zer zen gaur tokatzen zitzazuna?

- JON Ondarroara noa.
- JONE Aizu lehen ez didazu esan zer egin behar zenuten Ondarroan.
- JON Arrantza barku batean filmaketa bat
- JONE Eta ez al zegoen porturik gertuago?
- JON Bai, baina Ondarroara etorri gara.
- JONE Bale bale... Aizu zer ordutan itzuliko zareten ba al dakizu?
- JON: Ilundu aurretik ez behintzat.
- JONE Bale, nahi baduzu afaltzera etorri orduan
- JON: Ondo da. Gero arte
- JONE Aizu lehen ez didazu esan zergatik aukeratu duzuen Ondarroa filmaketarako.
- JON Bueno aproposena zela iruditu zaigulako. Ondarroa edo Bermeo gustatzen zitzaizkigun.
- JONE Baina badira arrantzale herriak gertuago.
- JON Ia, baina ez zitzaizkigun gustatzen.
- JONE Ba zer esatea nahi duzu. Ondarroa eta Bermeo baino politagoak badira
- JON Bai, Ven y Cuentalo bideo baterako bai, baina guk benetako arrantza herri bat behar genuen, ez postal folkloriko bat.
- JONE Bueno gauza batek ez du zerikusirik bestearekin.
- JON Ba niri zer esatea nahi duzu, Hondarribia, Getaria, Donibane Lohizune, harri-kartoizkoak iruditzen zaizkit.
- JONE Baina Ondarroa ez da prezisamente (hain zuzen ere)...
- JON Niri ederra iruditzen zait. Calatravaren zubi puta hori kenduta... Ondarroa, Bermeo, ni han benetako portu batean sentitzen naiz, zer egingo diot ba. Trintxerpen hazitakoa naiz.
- JONE Eta, ongi joan da filmaketa?
- JON Bai, Ondo.
- JONE Eta zertarako da egin duzuen?
- JON Berez gure proiektu bat da. Egungo arrantza munduaren inguruan dokumental bat egiteko asmoa dugu.
- JONE: Baina horrelako asko egin da ez?
- JON Bai, bueno, baina gehienak arrantzaleak eta itsasoaren ingurukoak. Gure asmoa arrantzalea eta lurra filmatzea da. Zer egiten duen arrantzaleak itsasoan ez dagoenean.
- JONE Ideia polita.
- JON: Ez dakit azkenean zerbait aterako den, baina egia esan, tarte libreak ditugunean, Igaraba produktorako (ekoiztetxerako) Arantxa eta biok sartu gara mobida honetan
- JONE Arantxa, Arantxa.
- JON: Bai, uste dut behin ezagutu zenuela. Tipa (neska, emakume) alta eta oso guapa (polit) bat. Morena eta begi urdinekin.
- JONE Horrela deskribatzen badidazu Victorias Secret modelo bat dela esango nuke
- JON: Ba ez bada, berak nahi izan ez duelako.
- JON Patroi bat bere barkuan konponketak egiten zebilela filmatzen ari ginela Arantzak ideia ederra izan du.
- JONE Guapa eta alta izateaz gain, gainera ideia onak ditu.
- JON Ze, tonutxo hori?
- JONE Zer tonu?
- JON Jajaja bueno, ba Arantzak dio Ondarroako emakumeen orrazkerekin pelikula bat egin litekeela eta egia da
- JONE Orrazkerekin?



JON: Bai, pasada bat da herri horretan emakumeek darabilten orrazkera. Nola esan... exuberatea (oparoa)... paradisuko txorien modukoak dira emakume ondarroarrak. Ile orrazkera eroak eta kolore biziko tinteak (tinduak) erabiltzen dituzte.

JONE: Lanean edo porroak erretzen pasa duzue eguna?

JON Arantzak dio, badela gorri kolore bat Ondarroa gorria behar duena izan, tinte hori Ondarroan besterik ez dela ikusten.

JONE: Arantzak badio, ala izango da. Orain pelukerian (Ile-apaindegian) aditua ere bada Arantxa.

JON Gustatzen zait zelosa (jeloskor) jartzen zarenean.

JONE Ni zelosa (jeloskor)? Nahiko zenuke.

JON Eta hoberena da, uste duzula zeloak disimulatzen ere badakizula, aiii etorri hona txoritxo.

JONE Ez duzu nahikoa izan zure Ondarroako paradisuko txoriekin?

JON Ez

JONE Eta Arantza superguapa (superpolita) eta superlistarekin (superazkarrarekin)?

JON Ez... nik nire Merkel txoritxo marmartia nahi dut. Eman pikito.

JONE (mimosa) Zein tontoa zaren